

Francisca Ibarzabal Bengoa
Leintz Gatzaga, Gipuzkoa (1937)

Aurkibidea

Biografia

Olaun auzoko San Juan Zahar baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Eskoriatzakoa.

Zintak

LEI-013

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Leintz Gatzaga
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-10-02
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Ama Eskoriatzako kaletik argindarrik ere ez zuen baserrira ezkondu zen

- **Erref:** LEI-013/002
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:16

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

San Juan zahar baserrian jaiotakoa da. Aita ere bertan jaioa zen eta ama Eskoriatzako auzo batekoa. Ama baserrira ezkondu zenean argirik ere ez zegoen San Juan zahar baserrian eta ama inoiz halako baserririk ezagutu gabea zen.

2. Baserrian ez zen goserik pasatzen: gaztaina-erreak, morokila, etxeko haragia...

- **Erref:** LEI-013/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra hasi eta lasterrera jaio zen. Gosete-urteak izan omen ziren, baina berak ez du horren oroitzapenik. Baserrietan egoera ez zen izaten hain txarra garia eta gaztaina-erreak izaten zituzten eta. Gaztaina-erreak nola prestatzen zituzten. Goizetan morokila eta esnea gosaltzen zuten. Beti izan dute ganadua eta txerria etxean eta etxeko haragia ere izaten zuten.

3. Larraina nola prestatzen zen garia jotzeko

- **Erref:** LEI-013/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Garia etxean jotzen zuten larrainean. Nola jotzen zuten garia. Larraina nola prestatzen zuten: zopizartu (lurrari gaineko belarrak kendu) eta gero "koronaria" eman. "Koronaria" ganaduen sahatsa lehortzen utzita egindako pasta moduko bat zen. "Koronaria" horrekin lurra gogor-gogor geratzen zen eta ez zen hautsik harrotzen.</p>

4. Erratzaren eta isuskiaren arteko aldea

- **Erref:** LEI-013/006
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:08:12

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Erratza eta isuskia ez dira gauza bera; isuskia "illarriakin" (txilarra) egindakoa da. Erratza finagoa da, baina isuskia latzagoa izaten zen.

5. Karea asko erabiltzen zen ortuan edo fruta-arbolekin

- **Erref:** LEI-013/008
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:12:50

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea nola egiten zuten ozta-ozta gogoratzen omen da. Karobia zuten etxe inguruan eta aita karea egiten zuen. 3 egunean egon behar izaten zen karobia erretzen harik eta goiko harriak zuritu arte. Askok erabiltzen zen lehen karea, batez ere ortuan botatzeko. Gaur egun ere egiten omen dute kanteretan karea, baina ez da gauza bera. Fruta-arbolen enborrak ere zuritzen ziren karearekin, inurriak ibil ez zitezen.

6. Karobia egiteko (bobeda) arte handia behar zen

- **Erref:** LEI-013/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:14:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobia ez zen auzolanean egiten, baina laguntzera etortzen ziren inguruko baserrietakoak. Karobia nola prestatzen zen. Harriak bildu eta harriak apurka jartzen joanez, bobeda itxi arte jartzen zituzten harriak. Arte handia izan behar da karobia prestatzeko. Euren baso baten kantera bat dute eta handik ekartzen zituzten harriak.

7. Zubiaundiko kanteratik Gasteizko "Azucarera"ra eramaten ziren harriak

- **Erref:** LEI-013/010
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:18

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Harrobi bat dute hiru sozioren artean: Zubiaundiko harrobira. Garai batean astean hiru bat merkantzia (trena) kargatu eta Gasteizera eramaten zituzten bertako harriak azukrea egiteko.

8. Gaztainadietako egurrarekin otzarak egiten zituzten

- **Erref:** LEI-013/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:16:56. **Bukatu:** 00:18:28

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gaztainadiak ez dira galdu, lehengo lekuan jarraitzen dute euren gaztainadiak. Hala ere, lehen otzarak egiten zituzten bertako egurrarekin eta baita zesta puntako zestoak ere. Gaur egun obretarako otzarak plastizkoak izaten dira eta gaztainaditik egurrik ez dute ateratzen.

9. Elgeamenditik Arkamura bitarteko tumuloak

- **Erref:** LEI-013/013
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:20:04

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Hiruerreketa: Deba ibaiaren sorlekua. Hiruerreketa inguruan, Elgeamenditik Arkamura bitarteko lautadan tumuloak omen daude. Elgeamendi inguruko mendirik altuena da 945 metro ditu. Aranzadi elkarteak katalogatuta omen dauzka tumulo horiek.

10. Gauda txabolan pasatu eta goizean ardiak jetzita behera

- **Erref:** LEI-013/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:22:50

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiak izaten zituzten mendian. Gauden mendira joan, basoko txabolan lo egin, ardiak jetzi eta goizean makilaren punta banatan kantinplorak hartuta etortzen ziren behera. Bere aita eta bere anaia ibiltzen ziren ardizain.

11. Ogi zuria eta "pasilloria"

- **Erref:** LEI-013/016
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:26:00

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Leintz Gatzaga altu dago eta neguak gogorrak izaten dira bertan elur eta izotzarengatik. Hala ere, artoa eta garia hartzen zituzten. Ogia egiten zuten etxean. Arto-irinari bi bahe pasatzen zizkioten, lehenengo latzagoa eta gero finagoa eta ogia zuri-zuria ateratzen zen. Zahiarekin "pasailloria" deitzen zitzaion ogia egiten zen. Hura etxean ezkutuan jateko izaten zen, pobreen ogitzat hartzen zelako. Labesua.</p>

12. Txahalak kanpoan ibiltzen ziren

- **Erref:** LEI-013/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Esnea ez zuten kalera saltzen, urruti gelditzen zitzaien eta. Hartzen zuten esnea etxerako eta txahalentzat izaten zen. Lehengo txahalak kanpoan libre ibiltzen ziren eta ez zuten pisurik irabazten. Hala ere, kanpoan etxean baino gehiago irabazten zuten.

13. Arrautzak izateko "ondokua" jartzen zitzaien oiloei

- **Erref:** LEI-013/019
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:31:05

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oilar bat edukitzen zuten oilo guztientzat. Arrautzak egiteko "ondokua, afixondokua" jartzen zitzaien oiloei. Trumoia tokatuz gero oilaloka arrautzekin dagoen bitartean ez omen dira txitak ateratzen.

14. Emakume bat ibiltzen zen oilaskoak zirikatzen

- **Erref:** LEI-013/020
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:34:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Etxean ez zituzten oilaskoak kapatzen normalean (kapoiak). Gatzagako emakume bat omen zen "kapadorea" eta baserririk baserri ibiltzen zen. Lehen oilaskoak gehiago zirikatzen ziren errenteroek baserri-jabeari kapoiak eman behar izaten zizkietelako. Nola zirikatzen (kapatzen) ziren oilaskoak: arrautzak kentzen zitzaizkien. Gaur egun era horretan zirikatutako (kapatutako) oilasko gutxi egongo dela uste du.

15. Elizan bedeinkatutako sortarekin pizten zen San Juan sua

- **Erref:** LEI-013/021
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:37:36

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juan sua egiten zen lehenago. San Juan egunean sorta bat egiten zen loreak, baratxuri burua, tipula, garia eta beste belar batzuekin eta elizara eramaten zen bedeinkatzeko. Sorta hura etxera eramaten zen bedeinkatuta eta hurrengo urtean harekin ematen zitzaion su San Juan suari gaitz txarrak uxatzeko. San Juan inguruan apaizak baserririk baserri joaten ziren ur bedeinkatuarekin soroak bedeinkatzera. San Juan kanta.</p>

16. Dorletako Ama; inguruko ermitak

- **Erref:** LEI-013/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:40:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Dorletako Ama Birjinaren irudia berria dela dio. Dorletako ama txirindularien zaindaria omen da eta Arlabandik jende asko pasatzen zelako bizikletan jarri zuten bertan irudia. Dorletako beheko arroan ermita bat omen zegoen (San Antonio Abad eta Padua). Ermita hondatzen joan zen piskanaka eta santuak ere kendu egin omen zituzten bertatik. Inguruan San Martin ermita ere ba omen dago. Dorletako amaren inguruan jendeak lore asko uzten du.</p>

17. Inguruan badaude oraindik pago eta haritzak

- **Erref:** LEI-013/026
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:45:12

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Beste inguru batzuk asko aldatu dira, gaur egun pinua nagusitu delkao, baina

Gatzagan elehngo basoak mantendu dira. "Tantaiko laua" deitzen zaion lekuan haritz ugari daude eta beste aldera ("Otzaibide" aldera) pagadiak. Hala ere, "Hiruerreketa" inguruan pinua nagusitu da.

18. Gurutzebidea, hildakoak eramateko bidea

- **Erref:** LEI-013/027
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:48:52

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Gurdiarekin eta idiekin joaten ziren garotara, gurdi gainean jarrita eta abestuz. Gaur egun traktorearekin ibiltzeko lehengo bideak galdu egin omen dira. Duela 20 urte inguru egin zieten oraingo bidea, baina aurretik "Kurtzebide"-tik ibiltzen ziren. Bide hori hildakoak eramateko bidea zen eta Gatzagaraino doa. Beste inguru batzuetatik beste "Kurtzebide" bat izaten zuten. Bide hauek gurutzatzen ziren lekuetan gurutze txiki bat egoten zen eta hara iritsitakoan "pater noster" bat errezatzen zen. Hildakoak bizkarrean eramaten ziren.</p>

19. Eguraldi txarra zenean edo baserrian lana zegoenean piper eskolatik

- **Erref:** LEI-013/028
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:48:52. **Bukatu:** 00:52:24

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara joaten zirenean oinetakoak edo arropak aldatzeko puntu konkretu batzuk izaten zituzten. Beraiek familiakoren baten etxean edo "Ospitala" deitzen zitzaionean aldatzen zituzten. San Joan zahar baserritik ere Gatzagara joaten ziren eskolara urruti egon arren. Eguraldi txarra zenean edo baserrian lana zegoenean ez ziren eskolara joaten. "Intxaurren" egin behar izaten zuten (idien aurretik jarri idiak zuzen joateko). "Artaria, burdinaria, [graria] eta trillua".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com